

GOIZEKO IZARRA

Arritokieta

Gabon eguna zen, Zeruan bere-biziko jaya, Zeruan beti da jai, baña Gabon eguna, an ere beste egunak baño ederragoa ta alaiagoa. Jai berezia noski.

Gauerdiko mezetan abestutzeko, lau-bost urte inguruko aingerutxoak ikasi zuten (1) Gabon abesti au.

Gabon gaba,
Gau argia,
Jesus Belen'en jayo da.
Pozikan dijoaz artzayak,
Zerutik datoz aingueruak.
Aintza Goyetan Jaunari,
Bakea gizonari.

Oi ura abesti gozoa ! Eta ura musika edo eresi ederra ! Biotzaren ari guztiak ikutu ta dar-dar eragitekoa. Nere mingañak ez du itzik, ez eta ere lumak alik, abesti ura nolako eztitsua zan azaltzeko. Gauza bat bakarrik esango det : abesti zerutarra zala, eta Zeruan aingerutxoak abestua.

Augaitik, emen ludi onetan ezin gentzake alako abestirik entzun. Zeruan entzungo ditugu, Gabon jayetan.

Illunen istantzan, Aita Jaungoikoak deitu zien aingerutxoai eta esan :

—Ederki abestu dezute ; oraiñ beste urtietan bezela, mundura jetxi bear dezute danok, ume onai Gabon-sariak eramatera. Eta entzun ondo. *Ez gero ume onik utzi saritu gabe, batez ere pobria edo beartsua baldin ba'da.*

Or, ate ondoan dauzkatzute sariok, Aita San Pedro'k eman-go dizkitzute, eta Gauerdiko Mezetarako sasoiz etorri danok bai dakizute ; beste urtietan bezela.

(1) Ikasi bearrik ez zuten, baña entzayo bat egiñ zutela esan nai det.

— Bai Jauna, — erantzun zioten aingerutxoak pozez bete-rik, Zerutik lurrera jun-etorri ura egiñ bear zutelako. Umeak ibiltariak bait dira eta aingerutxoak ere bai noski.

Ateak zabaltzen naikoa lan izan zuan Aita San Pedro'k. Izarraitz mendia baño tontor aundiagoa zegoan gauzez. Sakukadaka karameluak, gozuak, txokolatetxoak, turroyak eta abar. Kaja aundietan oñetakotxoak, jantzi dotoriak, eta abar. Jostalluak berriz, burdikadaka : Andereak, zaldiak, pelotak, danborrak... zer nai ta uraxe.

Aingerutxoak milloika ziran... Bai bear ere gauza ayek danak Zerut'k lurrera ekarri ta emengo ume on danari partitzeko.

Artu zituen bakoitzak beren pardeltxoak, eta egaz, batere zarata gabe (2) erten zuten Zerutik, eta artu zuten bakoitzak bere bidea. Batzuek Europa'rantz, beste batzuek Amerika'rantz, abek Afrika'rantz, ayek Asia'rantz, eta beste aiek Ozeania'rantz.

Europa'n etorri ziranak juan ziran batzuek Irlanda'rantz, beste batzuek Txekoeslobakia'rantz, France'rantz, Itali'rantz, eta abar... eta Euskal-Errira ere etorri ziran. Emen ere bait-ziran bada ume on eta zintzo asko.



Euskal-Errira etorri zan aingerutxo bat, urte artan lenengoz jetxia zen lurrera, Zerura juan berria zalakotz, eta etzekien besteak beziñ ondo sariak banantzen. Augaitik uste baño len gelditu zan ezer gabe, eta Zerurantz egazka asi zan, bere zeregiña amaituta.

Baña Ondarru, edo Getari, edo onelako erri baten gañetik igaro zanean, itxas-ertzean etxetxo zaar bakar bat ikusi zuan. Guztiz txiroa, leyoak leyar gabe, tella batzuek apurtuak ; otzak, aizeak eta euriak ere sartuta erten nai bezela egiteko erakoa.

Barruan, surik ez, sutondoan, ezer ez, eta gela estu batean, koltxoi gabeko oean, malutazko lastaira gañean, estalki gutxi-gaz estalduta mutiltxo eder bat lo.

Bost urte ingurukoa, larrosa baño ederragoa arpegia, ezpain

(2) Aingeruak ez bait-dute ez astunik, ez nekerik, ez argi bearririk bezela.

gorriak, izarrak beziñ eder begiak, sedazko ille kixkur gaztaña margoduna... Aur zoragarria !

Aita, itxasoan ittua zuan, Kantauri'ko itxaso gogorak gizon gosea izan zuan egun itun batean. Berrogei gizon artu zituan beretzat, erioen besarkada estuan egun artan, erri txiki artatik Kantauri'k. Euren artean gure mutiltxoen aita.

Euskaldun itxasoaren seme adoretuok, ludiko itxasorik gogorrenakiñ burrukan, ordu guzietan zeuen bizia salduta, eguneroko ogia, bulartsu ta kementsu irabazten dezuten eusko abendaren seme bikañok ; nik maite zaituztet, neu ere Kantauri itxasertzean sortua naizelakoz ta ezagutzen zaituetalakotz ; itxasgizonen umea bait-naiz ! Eta lerro abetatik agur dagitzuet biotzbiotzez.

Berdiñ zueri, Sokoa'tik Castro bitarteko itxas-ertzean, gizonak beziñ langille ta izukoitz, bulartsu, eleizkoi, garbi ; Jaungoikoari ta itxasoari begira, zeuen ume-zurtzok maitekiro azi dituzuten eusko andre alargunok.

Baña, neure ipuiari jarrai dagiot.

Arrezkero ama alargun gaxoak, bai zuan naikoa lan bientzat bizia irabazten.

*
**

Aingerutxuak, ume eder ura ikusi zuanean aiñ txiro, naigabe aundi bat nabaitu zuan bere biotzean. Bait-zekian ume ona zala, ta gogoan zeukan Aita Jaungoikoak esandako oarra : « Ez deitela ume on bakar bat ere sari gabe gelditu, *batez ere txiroa baldin ba'da.* » Eta berak ezer ez umeari emateko... ! Zer egiñ zezakean ?

Berealaxe pentsatu zuan, uste gabean egindako uts ura nola zuzendu. Arrada batean, zuzen-zuzen, tximista baño ariñago, jo zuan Zerurantz, artu zuan izar bat eta etorri zan mutiltxoen etxera. Sartu zan barrura leyo zarretik, leyo gabe ere sartu zeikean arren, nai izan ba'lu ; utzi zuan sutondoan izarra, juan zan ume txoen gelara, eman zion pa aundi bat, estalkiak ondo ipiñi zizkion eta kristal gabeko leyoetik erten eta Zerura juan zan lerro zuzen-zuzenean.

Juan etorri abek danak egiteko ez zuen amar miñuturik ere

bear izan. Aingeruak, pentsamentua baño ere ariñago, azkar-
rago ibilli oi dira ta.

*
**

Gauerdiko Meza amaitu zanean, mutiltxoen ama etxera ze-
torrelarik, urrutira ikusi zuan bere etxetxea argi-argitan.

— Nik ez det bada argirik utzi. Etxeak, su artu ete ? Ay
nere umea ! Ta ariñiketan jo zuan bere etxera.

Leyo zarretatik, ate zirrikatetik, giltza zulotik... dana argia.
Barruratu zanean, ura zan epel gozoa ! Sukaldetik berriz,
zer beroa ! ta jaki usai ederra.

Sutondoan zegoan izarrak, sortzen zuan beroa, etxe guztia
epel-epel, bero-bero ipintzeko lainekoa. Eta, gauza arrigarria !
Tximiniko laatzetik ixekita zegoan lapikoan aza-olioak zeuden
pil-pil, labetxoen gañean bixigua, zirt-zart ! otarratxo batean,
zapi garbiaz estalita gaztaña erriak, pin-pan ! eta pertz txiki ba-
tean, zuri-zuri, epel goxo-goxo, aya. Itz batean : Euskal-Erri-
an egiñ oi zan Gabon eguneko aparti berezi. Ez bait-zen orduan
champagne'rik, mazapan'ik eta orrelakorik ! Ez eta bearrik ere.

Alargun gaxoa, biotza taupadaka zuelarik juan zan seme-
txoengana.

— Ume, nor izan da gurean, ni eleizan nintzan bitartean ?

— Nik ez dakit, amatxo, nik ez det ezer susmatu, lo egiñ
det eta, baña amesetan edo, aingerutxo bat leyo onetatik sartu
ta erden egiten ikusi ete detan nago. Aingeru txiki batek pa eman
ditala ames egin det nik.

*
**

Mutiltxo euskaldunari arpegian pa eman da aingerutxo ar-
rada batean zuzen-zuzen, len esan dedan bezela, pentsamentua
baño ariñago Zerura'tu zan.

Aita San Pedro'k atea zabaltzean galdetu zion :

— Nundik eta nora ibilli zera zu ? Oraindik ez da berandu
baña, beste danak etorriak dira.

— Ara bada, — erantzun zion aingerutxoak. Sari guztiak
banandu ezkerre Euskal-Erriko itxas-ertzean mutiltxo on bat idoro
det, ona ta txiroa, eta, ez bait-nuen zer emanik !... Eta izar bat
zerutik artu ta eraman diot, zoriona izan dezan Gabon abetan.

— Um.... m m m — esan zuan Aita San Pedro'k buruari

eragiñaz, — ez dakit Aita Jaungoikoa'ri atsegiñ izango zayon zuk egiñ dezuna. Ez baitzayo gustatzen. Berak ipiñitako lekue-tatik gauzak aldatzea ! Ondo pentsatuta ipiñiak bait-dira bakoi-tza bere lekuan !

Au entzutean aingerutxoak negarrari ekin zion, eta nola bai Zeruan iñoiz-ez-iñoiz negarrik entzuten ez dan, Ama Birjiña etorri zitzayon arrituta eta galdetu maiteki aingerutxoari :

— Zer dezu, maite, negarrez aritzeko, emen, iñork negar-rik egiñ ez duan leku zorientsu onetan ?

Eta aingerutxoak, sotiñga esan zion auxe-ta-auxe gertatu zitzayola ume-sariakiñ ; eta onela-ta-onela zerutik izar bat era-man zuala etxetxo artara, eta nola Aita San Pedro'k auxe-ta-auxe esan zion.

— Ez orregaitik negarrik egiñ, maitetxo ; — esan zion Ama Birjiña'k begira nere soñekoan zenbat izar ditudan ; artu nai dezun bat, eraman eta ipiñi bestea artu dezun lekuan. Oraindik nai aña denbora daukazu.

Au entzutean, aingerutxoak artu zuan Ama Birjiña'ren gona-barrenetik izar zuri-urdiñ eder bat, eta azkar juan zan bestea artu zuan lekura, ta ordezkaria leku bertan utzi.

Au eginda berialaxe Zeruratu zan berriro, ta oraindik sasoiz eldu zan Gauerdiko Mezetarako.

Meza au nolakoa izan zan, eta zelako eresi-abestiak entzun ziran, nik eziñ neiken gauza da. Ipui onen asieran esan detan bezela, Zerura juaten geranean, An entzungo ditugu, eta Ara juateko alegiñak egiñ ditzagun danok.

**

Eguarri bigarreanean, goizeko ordu bietan Meza entzunda, bixigutan itxasora zijoazen Donibane Lohitzun'go, Ondarrabi'ko, Zumaya'ko, Mutriku'ko, Lekeitio'ko, Bermeo'ko ta abar arran-tzaleak, ortzean izar berri bat idoro zuten ; besteak baño aun-diago, ederrago, zuri-urdiñago ta ditzizaritsuagoa.

Eta *Goizeko Izarra* izena ipiñi zioten.

Oarra : Ipui au « El Correo Misionero de los niños » etik artu nuan baña asko aldatu det euske-rara biurtuz.